



Balio proposamena

Enpresaren munduan sartzea erabaki dugun 4 ekintzaile gaztez osatutako taldea gara, kortxozko tapoiekin eta plastiko birziklatuarekin egindako txankleta ekologikoak saltzeko helburuarekin.

Izan ere, enpresa gisa dugun helburuetako bat gure produktuen sorkuntzarekin hainbeste ez kutsatzea eta produktu tradizionalari alternatiba bat eskaintzea.

Egia da maila nazionalean zein internazionalean lehiari aurre egin beharko diogula. Eta Espainian ere lehia badugula, Bartzelonan produktu bera saltzen duen denda bat dago. Lehiakideei aurre egiteko, Donostian salduko ditugu gure txanketak. Gure lehiakideek prezio altuan saltzen dituzte txankletak, gure ustez, prezio garestiegia da eta merkeago saltzeko asmo daukagu, ziur aski nazioarteko lehiakideen prezioa zaila izango da gainditzea.

Bestalde, gure abantaila nagusietako bat da, jendeak jakitea gure produktuak birziklatutako materialekin egiten direla. Ondorioz, ingurumena kutsatzearen kontrako lana egiten degu.

Gure bezeroak gure produktuen konfiantza izateko eta leial izateko, produktua kalitate onekoa dela ikustea da eta, batez ere, erabilitako material guztiak birziklatuta daudela ulertzea da.



Ingurumenarekin konprometituta egoteko, gure enpresak 2030 agendaren planaren helburuetako bi eginkizun betetzen dituela ziurtatu dugu.



Gure enpresak modu jasangarrian sortuko ditu produktuak. Produktu artisauak egingo ditugu gure tailerrean, hondakin handirik sortu gabe.



Gure enpresak 13. helburua betetzen du; izan ere, birziklatutako produktu bat sortzen dugu, produktu bat modu erantzungarriagoan edukitzeko aukera eskainiz, eta produktu konbentzional batek eragiten duen kutxaduraz baztertuz.



Hau da gure enpresaren logoa eta leloa :



A small change for you, a big change for the planet